



TESTU BATEGINA, azaroaren 12ko 258/1996 DEKRETU **Arena,**
Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza-
Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duena,
urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak xedatzen dituen aldaketekin.

I. ATALBURUA .- XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua.- Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritzako Organo Gorena (OOG) hautatzeko eta partzialki berritzeko jarraitu beharreko prozesua arautzea da Dekretu honen xedea.

2. artikulua.- Dekretu hau aplikatuko zaie Euskal Autonomi Elkartean unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoei, eman ere, Euskal Eskola Publikoaren Legeko (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) 1. artikuluan, 1. eta 2. idazatietan xedatzen den moduan.

II. ATALBURUA.- ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO KIDEAK HAUTATZEKO PROZESUA

1. SEKZIOA: ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN OSAKETA

3. artikulua. 1.- Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketa ikastetxe bakoitzeko antolamenduko eta jarduerako araudiak zehaztuko du, indarrean dagoen legeria errespetatuz.

2.- Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko kide izango da, halaber, hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat.

3.- Antolamenduko eta jarduerako araudia onartu gabe duten ikastetxeen kasuan, Hezkuntza sailburuordearen erabakiak zehaztuko du Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketa.

2. SEKZIOA: ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO KIDEEN AGINTEALDIAREN IRAUPENA

4. artikulua. 1.- Agintealdiak lau urtetako iraupena izango du, ondorengo puntuan eta Dekretu honen 5. artikuluan 4. puntuan nahiz 7. artikuluan esaten denaren kaltetan gabe.

2.- Dekretu hau indarrean sartu ondoren, ikastetxe bakoitzean eratzen den lehen Ordezkaritza Organo Goreneko kideetatik erdiak bi urtetarako izango dira hautatuak; horrela beteko delarik azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak 24. artikuluan, 3. puntuan xedatzen duena, hain zuzen, bi urtetan behin Ordezkaritza Organo Gorenaren erdia berritzeko agindua.



3. SEKZIOA: ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN ERDIA BERRITZEA

5. artikulua. 1.– Dekretu hau indarrean sartu ondoren, ikastetxe bakoitzean burutzen den lehen hauteskunde-prozesuan hautatutako kideak, ordezkatzan dituzten eskola-komunitateko sektore bakoitzean bi multzotan bananduko dira.

2.– Eskola-komunitateko sektore batek hautatu beharreko kide-kopurua bikoitia bada, bi multzoek kideen kopuru bera edukiko dute. Bakoitia bada, lehenengo multzoak bigarrenak baino kide bat gehiago izango du.

3.– Multzo bakoitzeko kideak zehazteko, dagokion hauteskunde-prozesuan lortutako boto-kopuruaren arabera ordenatuko dira hautatuak, boto gehien lortu dituztenetik hasita. Boto-kopuru bera lortu dutenak alfabetikoki ordenatuko dira. Ordena horretan lehenengo erdian sartzen direnek lehen multzoa osatuko dute eta gainontzekoek bigarrena.

4.– Lehenengo multzoko kideak lau urtetarako izendatuko dira. Bigarren multzokoak, bi urtetarako.

6. artikulua.– Lehen hauteskunde-prozesu hori burutu ondoren, bi urtetan behin Ordezkaritza Organo Gorena partzialki berrituko da, hurrengo bakanteak betez:

a) Dena delako berritze partzialari dagozkion bakanteak: epe baterako izendatutako ordezkariak epe hori igarotzean hutsik uzten dituzten plazei dagozkienak.

b) Aurreko berritze partzialari dagozkion bakanteak: aurreko berritzean lau urtetarako izendatuak izan arren, agintealdiko lehen bi urteen barruan Ordezkaritza Organo Gorenako kide izateari utzi dioten ordezkarien plazei dagozkienak. Bakante hauek beteko dira, behin-behinean ordezeko batek bete izan baditu ala ez baditu kontutan hartu gabe.

7. artikulua.– Berritze partzial batean, aurreko berritze partzial bati dagozkion bakanteak badaude, oraingo berritzean bete beharreko postuak boto gehien lortu dituzten hautagaiek beteko dituzte (hauek lau urtetarako izendatuak izango direlarik); aurreko berritze partzialari dagozkionak, berriz, boto-kopuruaren arabera hurrengoak direnek beteko dituzte (bi urtetarako izendatuak izango dira hauek). Boto-kopuru bera lortu dituzten hautagaien artean, alfabetoaren arabera ordena edo hurrenkera jarriko da.

4. SEKZIOA: ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN OSAKETA ALDATZEA

8. artikulua.– Edozein ikastetxetako Ordezkaritza Organo Gorenak, bere eskuduntzak erabiliz eta indarrean dagoen araudia errespetatuz, edozein unetan alda dezake bere osaketa, antolamendurako eta jarduerako araudia aldatuz.



9. artikulua.– Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketa aldatzea onartzen duen erabakia onarpen horren ondoren egiten den lehen hauteskunde-prozesua burutu eta gero sartuko da indarrean. Une horretan, Ordezkaritza Organo Goreneko kide guztiek beren postuak utziko dituzte (agintealdiaren iraupena kontutan hartu gabe) eta onarturiko osaketa berriaren arabera, erabat berrituko da aipatu organo hori.

10. artikulua.– Osaketaren aldaketak dakarren Ordezkaritza Organo Gorenaren erabateko berritzea Dekretu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, Dekretu hau indarrean sartu eta gauzatutako lehen hauteskunde-prozesurako aurrirakosten den modu berean.

5. SEKZIOA: HAUTESKUNDE-ALDIA

11. artikulua.– Ordezkaritza Organo Goreneko kideak dagokion ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan hautatuko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako aldian.

6. SEKZIOA: HAUTESKUNDE-BATZORDEA

12. artikulua.– Ordezkaritza Organo Goreneko Kideak hautatzeko hauteskunde-aldia hasitakotzat eman dezan Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta gehienez ere zazpi eguneko epean, hauteskunde-batzorde bat osatuko da ikastetxe bakoitzean. Batzorde horretako osakideak hurrengoak izango dira: zuzendaria, lehendakaria izango dela, eta Ordezkaritza Organo Gorean ordezkaririk hautatu behar duen eskola komunitatearen sektore bakoitzaren kide bat, zozketa bidez aukeratuko dira denak. Halaber, ordezko kide bat hautatuko da sektore bakoitzetik.

Honako hauek dira batzorde honen egitekoak, Ordezkaritza Organo Goreneko kideak hautatzeari buruzkoak alegia:

a) Ikastetxea dagoen herriko udaletxeari eta Ordezkaritza Organo Gorean ordezkariren bat izendatzeko eskubidea duten beste erakunde publiko eta pribatuei, ordezkaririk horiek izenda ditzatela eskatzea.

b) Hauteskunde prozesuko ekintzak noiz egingo diren zehaztea, ahalik jenderik gehien joan dadin saiatuz.

c) Hautaketa prozedura arautzen duten arauen berri ematea behar-hainbateko publikitatez.

d) Hauteskunde-mahaien osakera sustatzea, horien egitekoak, boto-emanketen buru izatea, bake-giroa zaintzea, boto-emanketaren zuzentasunaz arduratzea eta boto-zenbaketa egitea.

e) Hauteskunde prozesuko ekintzak gauzatzeko agindua ematea, honako epe hauei jarraiki:



– Hautagaiak onartzea eta hautesleen zerrendak gertatzea: gutxienez zazpi eta gehienez hamar eguneko epea, hauteskunde mahaia osatzen den egunetik kontatzen hasita.

– Hautagaien eta hautesleen zerrenda behin-behineko argitaratzea: hauteskunde-batzordeak, hautagaiak onartzeko eta hautesleen zerrenda gertatzeko, ezarritako epea amaitzen den egunaren biharamunean.

Hautagaien bat elkarte, antolakunde edo taldeko kide lez aurkezten bada, derrigorrezkoa izango da egoera horren berri ematea izangaiak aldarrikatzeko unean.

– Izangaien eta hautesleen behin-behineko zerrenden aurkako murtziloak aurkezteko epea: hiru egun gehienez, zerrenda horiek argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.

– Aurkeztutako murtziloen ebazpena: hiru egun gehienez, murtziloak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

– Izangaien eta hautesleen zerrendak behin-betikoz argitaratzea: murtziloak ebazten diren egunaren biharamunean.

– Hautaketa ekintzak gauzatzeko epea: gutxienez lau eta gehienez zazpi eguneko epea, izangaien eta hautesleen zerrendak behin-betikoz aldarrikatzen diren egunetik kontatzen hasita.

– Boto-emanketetan lortutako emaitzak argitaratzea eta hautatuak behin-behineko aldarrikatzea: hautaketa-ekintza egiten den egunaren biharamunean.

– Hauteskundeetako emaitzen eta hautesleen behin-behineko zerrendaren aurkako murtziloak aurkezteko epea: gehienez hiru egun, horiek argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.

– Aurkeztutako murtziloak ebaztea: hiru egun gehienez, murtziloetarako jarritako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

– Hauteskunde emaitzak eta hautatuen zerrenda behin-betikoz argitaratzea: murtziloak ebazten diren egunaren biharamunean.

b), c) eta e) idazatietan xedatutakoaren araberrako ebazpenak, ikastetxeko iragarpen-oholtzean jarriko dira.

13. artikulua. 1.– Idatziz ebatzi ez daitezkeen murtziloak, ebazpenerako jarritako epea igaro ondoren, ukatutakotzat joko dira.

2.– Behin-betiko zerrenden aurka errekurtsio arrunta sar daiteke dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkararen aurrean, hilabete bateko epearen barruan.

7. SEKZIOA: HAUTAPENA EGITEKO PROZEDURA

14. artikulua.– Dagokion sektoreko kideetatik edozeini eman dakioke botoa, baldin eta izangai lez aldarrikatua izan bada.



15. artikulua.– Eskola komunitateko sektoreetako ordezkariak hautatzeko orduan, hautesle bakoitzak, bere boto-txartelean, kasuan-kasuko sektoreari dagozkion ordezkari-kopuru guztiaren bi herenaren hainbat izen idatziko ditu gehienez. Bi heren hori zatikizko zenbakia balitz, horren azpiko hurrengo zenbaki osoa hartuko da kontutan. Ordezkari bakarra hautatu behar izanez gero, hautesle bakoitzak, bere boto-txartelean, izen bakarra idatziko du.

Artikulu honetan ezarritako izangai-izenak baino gehiago jaso ditzaten eta behin baino gehiagotan errepikatutako hautagaien izenak izan ditzaten botoak, baliogabetzat joko dira.

16. artikulua.– Ikastetxe berean ordezkatzeko eskubidea izan dezaten sektoreetako partaide izan dadina, bera partaide deneko sektoreetatik bateko izangaia bakarrik izan daiteke.

17. artikulua.– Duten karguaren arabera Ordezkaritza Organo Goreneko berezko kide izan behar duena ezingo da ordezkari lez aukeratu.

18. artikulua.- Zuzeneko eta isilpeko sufragioz egingo dira botazioak. Hezkuntza-sektore guztiek ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenetaiko kideak hautatzeko prozesuetan parte hartzea errazte aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bide egokiak ezarri ahal izango ditu botoa ordezkatzeko edo botoa postaz emateko.

8. SEKZIOA: IRAKASLEEN ORDEZKARIAK HAUTATZEA

19. artikulua.– Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenean irakasleen ordezkariak izango direnak klaustroak hautatuko ditu. Klaustroko kide guztiak izango dira hautesle eta hauek hautatu ahal izango dute hauteskunde-batzordeak hautagai legez aldarrikatu dituen irakasleen artean.

20. artikulua.– Ezohizko bilkura baterako deia egingo dio, zuzendariak, klaustroari, hauteskunde-batzordeak ezarritako egunerako; egun horretan egingo da hautaketa-ekintza.

21. artikulua.– Ezohizko bilkura horretan hauteskunde mahai bat eratuko da. Ikastetxeko zuzendaria izango da mahaiburu eta zozketaz hautatutako bi irakasle kideak; azken horietatik gazteenak egingo ditu idazkari-lanak.

22. artikulua.- Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan, Ordezkaritza Organo Gorenerako irakasleriaren ordezkariak aukeratzera, ikasle horiekiko ardura pertsonalizatua betetzen duten ikastetxeari atxikitako irakasleek hautesle eta hautagarri modura hartuko du parte, ez dira halakotzat hartuko, ordea, hezkuntza-arreta osagarriko langileak.

9. SEKZIOA: IKASLEEN GURASOEN ORDEZKARIAK HAUTATZEA

23. artikulua.– Hauteskunde-batzordeak ezarritako egunerako, zuzendariak, deia egingo die guraso eta ikasleen legezko ordezkariari, hautaketa-ekintzara joan daitezten.



24. artikulua.– Ikastetxean matrikulatutako ikasleen guraso edo ordezkari legalak hartuko dira hautesle lez, eta hautagarri hauteskunde–batzordeak hautagai lez aldarrikatuak izan direnak. Hautagai eta hautatua izateko eskubidea amak zein aitak izango dute, biek batera ere erabil dezaketela eskubide hori eta, ondorioz, ez dago zertan baztertu beharrik batak bestearen eskubidez baliatzeko duen eskubidea.

Hala ere, «patria potestas» gurasoetatik bakar baten eskuetan dagoenean, «patria potestas» bereganatuta duena bakarrik izan daiteke hautesle eta hautagai.

25. artikulua.– Guraso edo tutoreen ordezkariak hautatzeko orduan, hautesleak direla egiaztatzeko, nahiko izango da nortasun agiri ofiziala erakustea.

26. artikulua.– Hautaketa ekintza egin dadin egunean eratuko da hauteskunde mahaia; partaide lez, mahaiburua izango den ikastetxeko zuzendaria eta zozketaz aukeratutako bi guraso edo tutore egongo dira; azken horietatik gazteenak egingo ditu idazkari-lanak.

27. artikulua.– Ordezko bokalak ere hautatuko dira; ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek osatuko dute mahaia; irakasleok, ezingo dira izan irakasleen ordezkariak hautatzeko den hauteskunde mahaiko osakideak.

28. artikulua.– Gurasoek eta tutoreek ihardun dezakete interbentore lez, gutxienez hamar hautesleren abala edo ikasleen guraso-elkarte batek proposatuak izan beharko dutela.

10. SEKZIOA: IKASLEEN ORDEZKARIAK HAUTATZEA

29. artikulua.– Ikastetxeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, ondorengo hauek izan ezik: haur-hezkuntzako ikasleak, lehen hezkuntzakoak eta hezkuntza berezikoak. Hautagarri, hauteskunde–Batzordeak hautagai legez aldarrikatu dituenak izango dira.

30. artikulua.– Hauteskunde-batzordeak ezarritako egunerako deia egingo die, zuzendariak, ikasleei, hautaketa-ekintzan parte har dezaten.

31. artikulua.– Hautaketa-ekintzaren egunean hauteskunde mahaia eratuko da. Mahaiburu izango den ikastetxeko zuzendariak, eta zozketaz aukeratutako bi ikaslek osatuko dute mahaia; azken horietatik gazteenak egingo ditu idazkari-lanak..

32. artikulua.– Ordezko bokalak ere hautatuko dira; ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek osatuko dute mahaia; irakasleok, ezingo dira izan irakasleen ordezkariak hautatzeko den hauteskunde mahaiko osakide.

33. artikulua.– Ikasleek ihardun dezakete interbentore lez, gutxienez hamar hautesleren abala edo ikasleen elkarte batek proposatuak izan beharko dutela.



11. SEKZIOA: IKASTETXEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ETA HEZKUNTZA ARRETA OSAGARRIKO LANGILEEN ORDEZKARIAK HAUTATZEA

34. artikulua.- Lan-kontratuz edo administratiboki ikastetxeari zuzenki lotuta izanik, irakaskuntzaz edo hezkuntzaz bestelako zereginetan dihardutenak dira administrazio eta zerbitzuetako langileak. Kanpoan geratzen dira ikastetxearekiko lotura zerbitzuak emateko enpresa baten bitartez eginda duten langileak

35. artikulua.- Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan, honako hauek izango dira hezkuntza-arreta osagarriko langileak: lan-kontratuz edo administratiboki ikastetxeari zuzenki lotuta izanik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin hezkuntza-arreta osagarriko zereginetan dihardutenak .

36. artikulua.- Sektore horietako bakoitzeko kideek beren ordezkariak izendatuko dituzte zuzendariak deituriko ekitaldietan, hauteskunde-batzordeak zehaztutako egunetan.

37. artikulua.- Sektore horietako bakoitzean, dagokion hauteskunde-ekitaldiaren egunean eratuko da hauteskunde-mahai bat, honako kide hauek izango dituenak: ikastetxe zuzendaria, mahaiburu izango dena; eta dagokion sektoreko bi kide, zozketaz aterata, eta horietako gazteena izango da idazkaria.

38. artikulua.- Ordezko kideak ere aukeratuko dira, eta ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, honako hauek izango dira mahaikide: zuzendaria eta zozketaz ateratako bi irakasle, irakasleen ordezkarietarako hauteskunde-mahaiko kideez bestelakoak.

12. SEKZIOA: HAUTESKUNDE PROZESUAREN AZKEN FASEA

39. artikulua.- Hautaketa-ekintza bakoitzean, bozketa amaitu ondoren, mahaiak botoak zenbatzeari ekingo dio. Botoak zenbatu eta gero (zenbaketa hau jendaurrekoa izango da), akta bat egingo da, mahaia osatzen duten guztiek izenpetuko dutena, eta akta hau hauteskunde-batzordeari bidaliko zaio. Dekretu honen 42. artikuluan bakanteak betetzeari buruz aurrikusten denari begira, akta horretan jasoko dira, lortutako boto-kopuruaren arabera ordenatuta, botoak eskuratu dituztenen izenak eta eskuratutako boto-kopurua. Boto-kopuru bera lortu dutenak alfabetoaren arabera ordenatuko dira.

Lortutako emaitzekin batera, aurkeztu diren era guztietako oharpen eta murtziloen berri emango da aktan. Oharpen edo murtzilorik aurkezten bada, murtzilo-egileak ere izenpetuko du akta.

Orobat, 12. artikuluan hautagaiak izendatzeaz aipatzen diren elkarte, erakunde edo taldeen erreferentziak berariaz adieraziko dira akta-agirian.



13. SEKZIOA: ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN ERAKETA

40. artikulua.– Bost eguneko gehieneko epearen barruan, hautatuen behin-betiko zerrenda argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren berria eratu du zuzendariak.

41. artikulua.– Euren kideei egotzi dakizkiekeen arrazoiaren ondorioz ez balu ordezkaririk hautatuko sektoreetariko batek, Ordezkaritza Organo Gorenaren eraketak ez du eragozpenik jasango horregatik.

14. SEKZIOA: BAKANTEAK BETETZEA

42. artikulua. 1.– Dagokion berritzearen aurretik Ordezkaritza Organo Gorenako kide izateko baldintzak galtzen dituen ordezkariek bakante bat sortzen du eta bakante hori beteko du, lortutako boto-kopuruaren arabera zerrendan hurrengoa den hautagaiak. Sortzen diren bakanteak hornitzeko, azken berritze partzialeko aktetako zerrendak erabiliko dira, bakantea aurreko berritze partzial batekoa izan ala ez izan. Bakantea betetzeko hautagairik ez balego, hutsik geratuko litzateke ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren hurrengo berritze partziala egin arte.

2.– Uztaiaz geroztik sortutako bakanteak, edozein berritze partzialaren aurretik justu sortutakoak, berritze honetan beteko dira eta ez dira ordezkoekin beteko.

3.– Aurreko bi puntuetan xedatutako modu berean beteko dira ondorengo bakante hauek ere: Ordezkaritza Organo Gorenako ordezkarik hautatuak izan diren irakasleek sortutakoak, sortu ere, ondoren, organo horren berezko kide izatera duen lagun bakarrek kargu baterako hautatuak edo izendatuak izan direlako.

4.– Aurreko hiru idaztatuetan xedatutakoa aplikatuko da soilik, baldin eta ikastetxearen antolamenduko eta jarduerako araudian ez bada espreski arautzen Ordezkaritza Organo Gorenaren sortutako bakanteak betetzeko prozesua.

5.– Edonola ere, berritze partziala burutzen den arte ordezkoa Ordezkaritza Organo Gorenaren kide izendatua izango da, ordezten duen pertsonaren agintealdiak zeukan iraupena edozein izanda ere.

43. artikulua.– Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketan egiten den aldaketa ororen berri eman behar dio berehala ikastetxeko zuzendariak dagokion hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenena.- Hautagaiak izendatzerakoan ez bada berriaz adierazten elkarte, erakunde edo talde jakin batekoak direnik, independentetzat hartuko dira parte-hartze, kontsulta edo aholku organoak eratuenerakoan kontuan hartu beharreko portzentaieki dagokienez.



Bigarrena:

1.- Ikastetxean ordezkariak handiena duen guraso-elkarteak bere esku izango du izendatzea sektore horrek hautatu behar duen ikasleen gurasoen lehen ordezkaria. Horretarako, komunikazioa bidaliko dio ikastetxeko zuzendariari, hautagaiak aurkezteko epea hasi baino lehen, izendatutako ordezkariaren izena adieraziz. Izendapen hori egin ezean, hauteskunde-prozesu arruntean beteko da plaza hori.

2.- Ikasleen gurasoen hauteskunde-eroldan egongo da ordezkari hori. Lau urteko agintaldia izango du, hasiera batean behintzat, eta ikasleen gurasoen ordezkari hautatuen arrazoi berberak izango ditu kargua uzteko, eta gainera, izendatu zuen ikasleen guraso-elkartearen erabakiz ere kendu ahal izango dute kargutik.

3.- Ikasleen guraso-elkarteak izendaturiko ordezkariak kargua utziz gero bere agintaldia amaitu baino lehen, une horretan ikastetxean ordezkariak handiena duen guraso-elkarteak ordezkari bat izendatuko du. Bi hilabeteko epean izendapenik egin ezean, honako honek beteko du postu huts hori: egindako azken hauteskudeari dagokion guraso-ordezkariaren ordezkariaren zerrendako lehenak.

Edonola ere, Dekretu honen 42. artikularen 5. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, berritze partziala burutzen den arte ordezkaria Ordezkariak Organoren kide izendatua izango da, ordeztzen duen pertsonaren agintealdiak zeukan iraupena edozein izanda ere.

4.- Ordezkariak handieneko guraso-elkartetzat joko da ikastetxeko ikasleen guraso-kopuru handiena bazkide-tuta duena.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe geratzen da 1994ko otsailaren 21eko Aginduaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandakoaren, atalburua, Euskal Autonomi Elkartearen ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan aginte-organoren hautaketa-prozesua arautzen duena; era berean, indargabe geratzen dira Dekretu honen aurka egonda, maila berekoak edo apalagokoak diren xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Jardunbideari dagokionean Dekretu honetan aurrikusten ez denari, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko zaio.

Bigarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.